



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera atera dezagun zenbait enpresa ezinbestekoak izango zaizkigu. Horretarako, sozietate batzuekin harremanetan jarriko gara.

Alde batetik, gure proiektuak ezingo luke funtzionatu bizikleta batzuk izango ez bagenitu, beraz hauek hornitzeko Oiartzun Bike enpresarekin harremanetan jarriko gara. Horrela, sozietate honek gure lehengai nagusia salduko liguke guk zerbitzuak eskaini ahal izateko. Lehen esan bezala, 60 bat bizikleta eskatuko genizkieke hasieran, beraz, pentsatu dugu errentagarriagoa dela denak batera eskatzea gutxiago ordain dezagun.

Bestalde, etorkizuneko bezeroei gure enpresaren berri informazioa irits zaitzaie, aurrez aipatu dugun bezala, turismo bulego, hostatu eta eskoletako zuzendaritzekin lankidetzan arituko gara. Horrela, EAEko turismo bulego ia guztietatik pasatzen diren bisitatzaileek gure enpresa ezagutuko dute, izan ere, folleto batzuk sortuko genituzke hauei eskuratzeko. Esan bezala, kanping eta hotelekin ere kontaktatuko dugu (Zarautzko Kanpinga, Hotel Flysch Zumaia, Hotel Talaso Zumaia ...), bertatik igarotzen direnei gure enpresaren berri eman diezaien. Eskolako zuzendaritzekin eta ikasleekin elkarrekin ere egingo genuke lan, ahalik eta jende gehien erakartzeko.

Aipatuberriz izan da folletoak egingo ditugula, baina gure enpresa ez da horretara dedikatzen, beraz beste batekin egin beharko luke lan hori guretzat: Diseinua, orrien aukeraketa, inprimaketa... Beraz, lan hau arte grafikoen zentroek egiten dutenez, Andoaino Ganboa Zentro Grafikoarekin kontaktatuko genuke, inprimakiak egin diezazkiguketen gero guk turismo bulego, hostatuei edota eskolei bidaltzeko.

Hornikuntza lanak alde batetik utziz, Euskal Herriko gastronomia ezagutzeko sagardotegi batekin lankidetzan arituko gara. Hau Zumarragako Etxe Azpi jatetxea izango da, Legazpitik 3,7km-tara kokatzen dena. Noski, jatete honetan jan ostean, bezeroak ez dira Zumairaino bizikletan itzultzeko prest egongo, beraz, gure garraioak bizikletak jaso ditzake Zumarragan eta bezeroei garraio publikoa erabiltzea ahalbidetu diezaikegu. Lankidetzan honetaz baliatuz, km0 diren elikagaien eskaintza emango dugu, jasagarritasun irizpideekin bat eginez.



Baita, gure bezeroek beraiekin bidea amaitu ondoren bizikletak lurrean laga ez ditzaten, haiek aparkatzeko beste sozietate batzuekin eremu pribatuetan aparkalekuak ezarriko genituzke. Adibidez, Zesturainoko bidea egiten dutenek, Zestuko Balnearioarekin akordio bat sinatuko genukeenez, bertan bizikletak aparkatzeko aukera izango lukete.

Honez gain, publizitatea egiteko, iragarkiak egingo ditugu. Honetarako, Euskal Irrati Telebistarekin harremanetan jarri gaitezke, telebistan ematen dituzten programen artean gure enpresaren inguruko iragarkiak eman ditzaten.

Hasieran esan bezala, sozietate hauek guztiak oso garrantzitsuak dira guretzako, izan ere, hauetako bat faltako balitzagu, ezingo genukeelako Urola Greenway enpresa aurrera atera.

